

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua, kotxeak partekatzea eguneroko bidaiak egiteko eta kotxe batekin pertsona bat baino gehiago bidaiatzea da.

Ikusi dugu agure asko ezin dutela gidatu eta haien bizitza errazteko irtenbide bat bilatu dugu, eta hauek gure bezero nagusiak izango direla pentsatzen dugu.

Horregatik agureek edo nahi duten pertsona edonoren kotxe batean bidaiatzeko aukera izango dute. Honetaz aparte, jende berria ezagutzeko aukera izango dute.

Kotxeak partekatzerakoan jende gutxiago haien kotxea hartuko du eta horrekin trafikoa ere murrizten da. Beraz, honekin ingurunea gutxiago kutsatuko da.

Laburbilduz, jende batek bere burua boluntario aurkeztuko du beste jende bat eramateko, eta hori guztia aplikazio honen bidez egingo da, hau da, gure proiektuaren bidez. Hala, gutxiago erabiliko ditugu autoak, eta kutsadura murriztea lortuko dugu. Gainera, jendeak beste bat ezagut dezan lortuko dugu.